

Euskadiko biztanleria zaharkitzen ari da: Euskadiko gazteen indizeak % 5 inguru egin du behera azken zazpi urteotan, % 16,4an kokatu arte

Gaur egun 15 eta 29 urte bitarteko 354.176 gazte daude Euskadin, 2001ean baino 80.000 gutxiago. Araba da gutxien zaharkitzen ari den lurraldea: gazteen indizeak garaiena du eta bere ordezen-tasari erreparatuz, 65 urtetik gorakoek ez dituzte 20 urtera artekoak gainditzen (97,7).

2008ko Biztanleen Udal Erroldaren arabera, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanle gazteak 354.176 dira, biztanleria osoaren % 16,4, hain zuzen ere.

Biztanleriaren eta Etxebizitzen Erroldaren 2001eko datuekin konparatuta, 80.491 gazte gutxiago dago, % 18,5 gutxiago, izan ere.

2008ko datuek aditzera ematen dute gazteen kolektiboan gehiago direla mutilak (% 51,3) neskek baino (% 48,7).

15 eta 29 urte bitarteko biztanleak adin-tarteka aztertu ondoren, ikus daiteke % 43,3 25 eta 29 urte bitarteko gazteak direla; % 31,7 20 eta 24 urte bitartekoak; eta % 25,0 15 eta 19 urte bitartekoak.

Azken zazpi urteotan 15 eta 29 urte bitartekoen taldean egon den beherakada nabarmena izan da: 2001ean gazteen kolektiboa biztanleria osoaren % 20,9 zen eta, 2008an, % 16,4. Era berean, ordezen tasak aditzera ematen du biztanle nagusienak ugariagoak direla biztanle gazteenak baino. Izan ere, 65 urtetik gorako 110 pertsona daude 20 urtera arteko 100 pertsonako.

Lurralde historikoak

Lurralde historikoen gazteria indizeari bagagozkio, ikus dezakegu Araba dela 15 eta 29 urte bitarteko gazteen proportziorik handiena duen lurraldea (% 17,4). Sailkapeneko bigarrena Bizkaia da: bertako gazteek biztanleria osoarekiko % 16,4ko portzentajea osatzen dute. Gipuzkoan indizea % 16,0koa da.

Ordezpen-tasari erreparatuta, Araba da lurralderik gazteena: 65 urtetik gorako 97,7 pertsona daude 20 urtera arteko 100 gazteko. Gipuzkoan tasa hori 104,2koa da eta Bizkaian 65 urtetik gorako 118,5 pertsona daude 20 urtera arteko 100 gazteko.

Eskualdeak

Gazteen indizea eskualdez eskualde eta Euskadikoarekin (% 16,4) konparatuta aztertzen badugu, baieztatu dezakegu hauek direla Euskadiren indizetik gora dauden eskualdeak: Arabako Lautada (% 17,8), Kantauri Arabarra (% 17,1), Durangaldea (% 17,1), Urola Kosta (% 17,1), Goierri (% 16,6), Bilbo Handia (% 16,4) eta Bidasoa Beherea (% 16,4). Gainerako eskualdeetako 15 eta 29 urte bitarteko gazteen proportzioa apalagoa da

Euskadikoa baino; Arabako Mendialdea gazteen indize apalena duen eskualdea da (% 11,4).

Ordezpen-tasari dagokionez, Euskadikoaren gaineko tasa duten eskualdeak honako hauek dira: Arabako Mendialdea (238,1), Arabako Ibarrek (149,1), Deba Beherea (131,0), Markina-Ondarroa (130,3), Gernika-Bermeo (129,4), Enkarterriak (128,9), Bilbao Handia (123,7), Deba Garaia (114,7), Arratia-Nerbioi (112,3), Errioxa Arabarra (111,9) eta Kantauri Arabarra (111,5). Gainerako eskualdeen ordezen-tasa Euskadiko guztizkoaren azpitik dago. Izatez, eskualde hauetako batzuetan biztanle nagusienek ez dituzte gazteenak gainditzen eta, horrela, belaunaldien ordezkapena bermatuago dago.

EAEko gazteen indizea eta ordezen-tasa. 2008

	Gazteen indizea	Ordezen-tasa		Gazteen indizea	Ordezen-tasa
EAE	16,4	110,6	Araba	17,4	97,7
			Bizkaia	16,4	118,5
			Gipuzkoa	16,0	104,2
Arabako Ibarrek	12,1	149,1	Gernika-Bermeo	16,0	129,4
Arabako Lautadak	17,8	93,9	Markina-Ondarroa	16,1	130,3
Arabako Mendialdea	11,4	238,1	Plentzia-Mungia	15,9	70,9
Errioxa Arabarra	16,1	111,9	Bidasoa Beherea	16,4	92,1
Gorbeia Inguruak	13,5	76,5	Deba Beherea	15,8	131,0
Kantauri Arabarra	17,1	111,5	Deba Garaia	16,3	114,7
Arratia-Nerbioi	16,0	112,3	Donostia-San Sebastián	15,6	110,0
Bilbo Handia	16,4	123,7	Goierri	16,6	103,0
Durungaldea	17,1	95,1	Tolosa	15,8	89,3
Enkartazioak	16,3	128,9	Urola Kosta	17,1	79,7

Iturria: Biztanleen Udal Errolda, 2008ko urtarrilaren 1ari dagokiona. INE eta bertan egina.

Gazteen indizea = 15 eta 29 urte bitarteko gazteen portzentajea biztanleria osoarekiko

Ordezen-tasa = 65 urteko eta hortik gorako biztanleria, 20 urtetik beherako 100 pertsonako.

BIZTANLERIA OSOA

2008an Euskadik 2.157.112 biztanle izan ditu, Biztanleen Udal Erroldaren arabera. Errolda horretako datuek diotenez, biztanleen erdia baino gehiago (% 51,1) emakumeak dira eta biztanleria orokorrak gora egin du 2001etik (2.082.587 biztanle).

2008an bilduriko datuek biztanleria orokorra lurraldez lurralde duen banaketaren berri ematen dute: % 53,1 Bizkaian bizi dira; % 32,5 Gipuzkoan eta % 14,4 Araban.

Eskualdez eskualde biztanleak nola banatzen diren ikusiz gero, Euskadiko biztanle gehienak biltzen dituztenak Bilbo Handia (% 40,5), Donostialdea (% 14,9) eta Arabako Lautada (% 11,5) dira.

Arabako Lurralde Historikoan biztanle proportziorik handiena duen eskualdea Arabako Lautada da, arabarren % 80,0 bertan bizi baitira. Vitoria-Gasteizen datza eskualde honen garrantzia, eskualde horri baitagokio Arabako hiriburua. Izan ere, Arabako biztanleen % 75,1 gasteiztarrak dira.

Bizkaiko Lurralde Historikoan biztanle gehien dituen eskualdea Bilbo Handia da (bizkaitarren % 76,2). Izatez, eskualde honetan biztanle kopuru handiko udalerrriak biltzen dira, besteak beste Bilbao, Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi eta Basauri.

Gipuzkoako Lurralde Historikoari gagozkiolarik, gipuzkoarren % 46,0 Donostialdean bizi dira, % 11,0 Bidasoa Beherean eta % 10,1 Urola Kostan. Datuek adierazten dutenagatik, Gipuzkoan biztanleak sakabanatuago daude Araban eta Bizkaian baino.

Erlazionaturiko datuen kontsulta:

15 eta 29 urte bitarteko biztanle gazteei bburuzko adierazle estatistikoak.

Erlazionaturiko estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle estatistikoaren sistema